

Nor da Txirrita?

Jose Manuel Lujanbio Txirrita bertsolari handiaren bitzta ezagutuko duzu entzungai honetan. Ba al zenekien gaur egungo bertsolarien aintzindaria izan zela?



1936. urteko Euskal Herriko Bertsolari Txapelketako taldea
Argazkia: Fondo Car-Kutxa Fototeka

Txirritaren biografia ulertu beharko duzu, ondoren agertzen diren baieztapenak egia edo gezurra diren adierazteko.



<https://labur.eus/dlWPx>

	Egia	Gezurra
Joxe Manuel Lujanbiok familia bizi zen baserritik jaso zuen ezizena: <i>Txirrita</i> .		
Txirrita oso trebea zen bertsoak egiten, baina ez zuen lortu bitzta bertsolari moduan irabaztea.		
Bere bertsoetan garaiko gaiak eta arazoak aipatzen zituen.		
Txirritaren bertso asko guregana iritsi dira, liburu eta abestietan jasota.		
Bertsolari ospetsua izan zen, baina ia ez zuen bertso idatzirik saldu.		
1935 eta 1936 urteetan txapeldun izan zen Euskal Herriko Bertsolari Txapelketan.		
Txirrita oso ezaguna izan zen bere garaian eta bere ospea gaur egunera arte iritsi da.		

ERANTZUNAK

	Egia	Gezurra
Joxe Manuel Lujanbiok familia bizi zen baseritik jaso zuen ezizena: <i>Txirrita</i> .	X	
Txirrita oso trebea zen bertsoak egiten, baina ez zuen lortu bizitza bertsolari moduan irabaztea.		X
Bere bertsoetan garaiko gaiak eta arazoak aipatzen zituen.	X	
Txirritaren bertso asko guregana iritsi dira, liburu eta abestietan jasota.	X	
Bertsolari ospetsua izan zen, baina ia ez zuen bertso idatzirik saldu.		X
1935 eta 1936 urteetan txapelkun izan zen Euskal Herriko Bertsolari Txapelketan.		X
Txirrita oso ezaguna izan zen bere garaian eta bere ospea gaur egunera arte iritsi da.	X	

TRANSKRIPZIOA

Txirrita, mingain zorrotzeko bertsolaria

Joxe Manuel Lujanbio, *Txirrita*, Hernaniko Ereñozu auzoko Latxe-Zar baserrian jaio zen, 1860ko abuztuaren 14an. Mutil koskorra zela, ordea, familia Errenteriako Txirrita baserrira joan zen bizitzera, eta bizilekutik jaso zuen, hain zuzen, hain ezaguna den ezizena. Altxako Gazteluene baserrian egin zituen bizitzako azken urteak.

Txirrita hargina zen ofizioz, baina bertsoarako zuen trebetasunari esker afizioa ofizio bihurtzea lortu zuen. Aitzindaria izan zen, bertsolari gisa bizimodua ateratzea ez baitzen erraza orduan, ezta orain ere. Mingain zorrotzeko eta bizkorreko bertsolari gisa nabarmendu zen, eta garaiko kezkak bertso-gai izan zituen: gerrak, grebak, foruen galera, Norte tren... garai hartako herri-klasearen pentsamoldeak eta kezkak plazaratzen zituen.

Horietako asko, gainera, jasota geratu dira: Antonio Zabalak eta Juanjo Uriak hainbat liburutan bildu zituzten Txirritaren bertsoak; Xabier Letek eta Antton Valverde, berriz, ahotsa jarri zieten, eta Juanba Berasategik marrazki bizidunetan jaso zuen haren bizitza.

Bertso-jardunean ezaguna zen, baina bertso-jartzaile gisa nabarmendu zen, batez ere. Jende asko joaten zitzaion bertsopaperak eskatzera. 10 duro sortako, gaur egungo 0,3 euro, kobratzen zituen. Plazagizona izanik, herrietako jaialdietan Txintxua, Artzai Txikiya, Saiburu, Pello Errota edota Otañotarrekin aritzea ohikoa zuen.

Txapelketak ere ezagutu zituen. 1935. urtean jokatu zen lehenengo Euskal Herriko Bertsolari Txapelketan bigarren sailkatu zen, Basarrik txapela jantzi zuen hartan. Bigarren edizioan, berriz, 1936an, bera izan zen txapelkun. Ez zuen lorpenaz gozatzeko aukera handirik izan, hilabete gutxira hil baitzen. Goizuetara bertsozara zihoala, hamaiketakoa egin ondoren, gaizki sentitu eta bizitokira eraman zuten. Hiru egunera hil zen, 1936ko ekainaren 3an, Francoren altxamendua hasi baino egun batzuk lehenago.

Itzal luzea du Txirritak. Horren adierazgarri, Bilbon, Hernanin eta Donostiako Altza auzoan bere izenean dituen hiru kaleak, eta baita Errenteriako Txirrita parkea ere.